

**LEHENDAKARIAREN 50/2015 ERABAKIA**

---

*Aizmendiko zabortegian hondakin ez-arriskutsuetarako I. faseari dagozkion obren kontratua esleitzea.*

**Adjudicación del contrato de las obras correspondientes a la Fase I de la celda de residuos no peligrosos del vertedero de Aizmendi**

---

“Aizmendiko zabortegiaren (Gipuzkoa) ingurumen-baimen integratua eskatzeko proiektuaren” barruan dagoen eraikuntza-proiektutik hondakin ez-arriskutsuetarako gelaxkaren I. faseari dagozkion obretan, San Marko Mankomunitatearen Lehendakariak maiatzaren 15eko 20/2015. ebazpenaren bitartez kontratazio-espedita onartu, irizpide anitzak balioztatuz prozedura irekitzea, Administrazio Baldintza Berezien Orria onartzea eta gastua baimentzea erabaki zituen.

El Presidente de la Mancomunidad de San Marcos, mediante Resolución 20/2015 de fecha 15 de mayo, acordó aprobar el expediente de contratación, disponer la apertura del procedimiento abierto con pluralidad de criterios a valorar, aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y autorizar el gasto correspondiente a la ejecución de las obras correspondientes a la Fase I de la celda de residuos no peligrosos del proyecto constructivo integrado en el documento denominado Proyecto para la solicitud de la autorización ambiental integrada del vertedero de Aizmendi (Gipuzkoa).

Aipatu kontratua esleitzeko prozedura irekiaren bidezko lizitazioa 2015eko maiatzaren 21eko 94 zkia. duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri zen.

La licitación por procedimiento abierto para la adjudicación del contrato de referencia se anunció en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 94 del 21 de mayo de 2015.

Lizitazio publikoa egin ostean, bi eskaintza aurkeztu ziren eta Kontratazio Mahaiak kontratua arautzen duten administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoaren orriek xedatutakoarekin bat aztertu ditu.

Realizada la licitación pública se presentaron dos ofertas que han sido examinadas por la Mesa de Contratación conforme a lo dispuesto en los pliegos de condiciones administrativas y técnicas que rigen este contrato.

Uztailaren 29an egindako saioan, Kontratazio Mahaiak, aurkeztutako eskaintza teknikoak aztertu ondoren egindako txosten teknikoekin bat, eskaintzen balorazioa onartu eta lizitaziotik eskaintza bat baztertzea erabaki zen, administrazio-baldintzen orriak xedatutakoari jarraiki, formula matematikoak aplikatuz baloratzen ez diren balorazio-irizpideen arabera zehaztutako puntu guztietatik (50 puntu) gutxieneko atalasea (30 puntu) ez gainditzeagatik. Eskaintza baztertua ondorengoa da: ALTUNA Y URÍA, S.A. enpresak aurkeztutakoa.

En sesión de fecha 29 de julio la Mesa de Contratación, conforme a los informes técnicos elaborados tras el examen de las ofertas técnicas presentadas aprobó la valoración de las ofertas y acordó excluir de la licitación a una oferta, al no superar el umbral mínimo de 30 puntos del total de puntos establecidos (50 puntos) para los criterios de valoración que no se valoran por aplicación de fórmulas matemáticas establecido en el pliego de condiciones administrativas. La oferta excluida es la presentada por la empresa ALTUNA Y URÍA, S.A.

Uztailaren 29ko saioan, Kontratazio Mahaiak aurkeztutako eskaintza ekonomikoaren balorazioa onartu zuen eta ondorengo azken puntuazioan oinarrituta eskaintzen sailkapen-proposamena egin ere bai:

En sesión de 29 de julio la Mesa de Contratación aprobó la valoración de las ofertas económicas presentadas y realizó propuesta de clasificar las ofertas en base a la puntuación final siguiente:

	Guztira
CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L.	83,5

	Total
CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L.	83,5

Balorazio teknikoak eta ekonomikoak gauzatu ondoren, hurrengo sailkapenean azaltzen den lizitatuak bakarren puntuazioa eman du

Las valoraciones tanto técnicas como económicas han dado como resultado la puntuación que se indica, siendo un único licitador el clasificado

Kontratazio Mahaiak uztailaren 29an egindako saioan, aipatutako balorazioak eta uztailaren 17ko txosten teknikoan zein balorazio ekonomikoan oinarrituta, esleipen proposamena egin zuen.

En la sesión del 29 de julio de la Mesa de Contratación, una vez realizadas las mencionadas valoraciones y, en base al informe técnico del 17 de julio, y a la valoración económica se realiza la propuesta de adjudicación.

Era berean sailkatutakoari kontratazio hau arautzen duten Administrazio Baldintza Berezien Agiriak 15.3 klausulan xedatutako jarduerak burutu zitzan eskatzea erabaki zuen.

Asimismo, se acuerda requerir al único clasificado para que efectúe las actuaciones que se especifican en la cláusula 15.3 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que rigen esta contratación.

Xede horretarako zehaztutako epean eta aipatu eskeari erantzunez, CONSTRUCCIONES MOYUA S.L. enpresak eskatutako dokumentazioa aurkeztu duela ikusirik.

En contestación a dicho requerimiento y dentro del plazo establecido al efecto, la empresa CONSTRUCCIONES MOYUA S.L. ha presentado la documentación requerida.

2015eko irailaren 7ko langilego teknikoaren zati bat ordezkatzeari buruzko txosten teknikoak ikusirik eta SPKLTBk 151 artikuluan xedatutakoa kontutan hartuta, honakoa

Considerando el contenido del informe técnico de análisis de la propuesta de sustitución de parte del personal técnico de fecha 7 de septiembre de 2015 y teniendo en cuenta lo dispuesto por el artículo 15 del TRLCSP

## ERABAKI DUT:

## ACUERDO

**LEHENENGOA:** Administrazio-baldintzen orriak xedatutakoari jarraiki, formula matematikoak aplikatu gabe balioztatzen diren balorazio-irizpideen kasuan zehaztutako puntu guztietatik (50 puntu) 30 puntuko gutxieneko atalasea ez gainditzeagatik honako enpresak aurkeztutako proposamena lizitaziotik **BAZTERTZEA:** ALTUNA Y URIA, S.A.

**PRIMERO:** EXCLUIR de la licitación, al no superar el umbral mínimo de 30 puntos del total de puntos establecidos (50 puntos) para los criterios de valoración que no se valoran por aplicación de fórmulas matemáticas establecido en el pliego de cláusulas administrativas, la propuesta presentada por la siguiente empresa: ALTUNA Y URIA, S.A.

**BIGARRENA:** “Aizmendiko zabortejiaren (Gipuzkoa) ingurumen-baimen integratua eskatzeko proiektuaren” barruan dagoen eraikuntza-proiektutik hondakin ez-arriskutsuetarako gelaxkaren I. faseari dagozkion obra lanak CONSTRUCCIONES MOYUA S.L. enpresari ESLEITZEA, Administrazio Baldintza Berezien Orriak eta esleipendunaren proposamenak dituen zehaztapenekin bat. Prezioa lauhun eta hamazazpi mila hirurehun eta hamar euro eta hamabost zentimokoa (417.310,15 €) da

**SEGUNDO:** ADJUDICAR el contrato de ejecución de las obras correspondientes a la Fase I de la celda de residuos no peligrosos del proyecto constructivo integrado en el documento denominado Proyecto para la solicitud de la autorización ambiental integrada del vertedero de Aizmendi (Gipuzkoa)” a CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L. por un precio de cuatrocientos diecisiete mil trescientos diez euros con quince céntimos (417.310,15€) más ochenta y siete mil seiscientos treinta y cinco euros con trece céntimos

gehi laurogeita zazpi mila seiehun eta hogeita hamabost euro eta hamahiru zentimokoa (87.635,13 €) BEZaren kontzeptupean. Beraz, guztira bostehun eta lau mila bederatziehun eta berrogeita bost euro eta hogeita zortzi zentimo (504.945,28 €).

Obrak gauzatzen diren bitartean erabiliko diren prezio unitarioak Administrazioak onartutako proiektuan agertzen direnak izango dira eta 0,712 esleipen-koefizientea aplikatuko zaie eskaintzaileak egindako eskaintza ekonomikoa kontuan hartuta, administrazio-baldintza berezien agiriak 18. artikuluan xedatutakoarekin bat.

417.310,15/585.845,19=0,712

**HIRUGARRENA:** Kontratua arautzeko, lizitazioaren baldintza ekonomiko, administratibo eta teknikoen orriei, baita esleipendunaren eskaintzari ere (guztiak espedientean) erreparatuko zaie. Horiek guztiak ondoko dokumentuekin bat etorriko dira.

1. "Aizmendiko zabortegean (Gipuzkoa) ingurumen-baimen integratua eskatzeko proiektua, GEYSER HPC, SAU enpresak 2006ko azaroaren 24an idatzitakoa.
2. 2008ko apirilaren 30eko Ebazpena, Ingurumen sailburuordearena, San Markoko Mankomunitateak Donostiako udalerrian (Gipuzkoa) sustatu ondoren, hondakin inerte eta ez-arriskutsuetarako zabortegeari dagokion ingurumen-baimen integratua (IBI) ematen duena, eta 2008ko abenduaren 9ko Agindua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendurako sailburuarena, Ingurumen sailburuordearen 2008ko apirilaren 30eko Ebazpenaren kontra San Markoko Udal Mankomunitateak jarri zuen gora jotzeko errekurtsioa ebazten duena.

**LAUGARRENA:** Obrak gauzatzeko epea lau (4) hilabetekoa izango da. Zuinetaren Egiatzapen Akta sinatu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

**BOSTGARRENA:** Aipatu esleipenaren babesean, era berean, hamabost (15) laneguneko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik

(87.635,13 €), correspondientes al IVA, lo que hace un total quinientos cuatro mil novecientos cuarenta y cinco euros con veintiocho céntimos (504.945,28€).

Los precios unitarios que regirán durante la ejecución de las obras serán los que figuran en el proyecto aprobado por la Administración, afectados por el coeficiente de adjudicación 0,712 resultante de la oferta económica realizada por el licitador: tal y como se establece en la cláusula 18 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

417.310,15/585.845,19=0,712

**TERCERO :** El contrato se regirá de acuerdo a lo dispuesto en los pliegos de condiciones económico-administrativas y técnicas que han regido la licitación, así como a la oferta del adjudicatario, que consta en el expediente. Todo ello en concordancia con:

1. El "Proyecto para la solicitud de la autorización ambiental integrada del vertedero de Aizmendi (Gipuzkoa" redactado por GEYSER HPC, S.A.U. de fecha 24 de noviembre de 2006.
2. La Resolución de 30 de abril de 2008, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se concede autorización ambiental integrada (AAI) para el vertedero de residuos inertes y no peligrosos promovido por la Mancomunidad de San Marcos en el término municipal de Donostia (Gipuzkoa) y la Orden de 9 de diciembre de 2008 de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio por la que se resuelve el recurso de alzada interpuesto por la Mancomunidad Municipal de San Marcos contra la Resolución de 30 de abril de 2008 del Viceconsejero de Medio Ambiente.

**CUARTO:** El plazo de ejecución de la obra es de cuatro (4) meses iniciándose su cómputo el día siguiente al de la firma del Acta de Comprobación del Replanteo.

**QUINTO:** En virtud de la referida adjudicación, le comunico igualmente que en el plazo de quince (15) días hábiles siguientes a la recepción de la presente

zenbatzen hasita, administrazio honetan agertu beharko luke esleipendunak kontratua administrazio-dokumentuan legeztatzeko. Kontratua sinatu baino lehen, esleipendunaren ordezkariak Mankomunitatearen bulegoetan honakoak aurkeztu beharko ditu:

- a) Nortasuna eta ordezkari-tza egiaztatzen duten dokumentuak.
- b) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratutako Lizitazio-iragarkiaren ordainagiria 192,49 eurokoa, alegia.

**SEIGARRENA:** Esleipena kontratugilearen profileen eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta eskaintza aurkeztu duten eskaintzaile guztiei jakinaraztea.

Ebazpenaren kontrako errekurtsuak

- a) Nahi izanez gero, eskatzaileak berraztertze-ko errekurtsua aurkez dezake, administrazio-arekiko auzietara jo baino lehen (30/1992 Legea).
  - Horretarako, hilabeteko epea du, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
  - Errekurtsua aurkezten badu, Mankomunitateko presidenteari zuzendu beharko dio.
- b) Bestela, zuzenean administrazio-arekiko auzi-errekurtsua jar dezake.
  - Xede horrez, bi hilabeteko epea du, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
  - Errekurtsua aurkezten badu, Donostiako Administrazio-arekiko Auzi Epaitegira jo beharko du.

notificación deberá comparecer en esta administración para formalizar el contrato en documento administrativo. Previamente a la firma del contrato, el representante del adjudicatario deberá presentar en las oficinas de la Mancomunidad:

- a) Los documentos que acrediten su identidad y representación
- b) El justificante del abono del anuncio de licitación publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (BOG) cuyo importe asciende a 192,49 euros.

**SEXTO:** Publicar la adjudicación en el perfil del contratante y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y comunicarlo a todos los licitadores que han presentado oferta.

Recursos contra esta resolución

- a) El solicitante, si así lo desea, puede presentar un recurso de reposición, antes de acudir al contencioso (Ley 30/1992).
  - Para ello tiene el plazo de un mes a partir del día siguiente a recibir la notificación de esta resolución.
  - De presentar recurso debe dirigirse al Presidente de la Mancomunidad
- b) De lo contrario, puede presentar directamente un recurso contencioso administrativo.
  - Para ello tiene el plazo de dos meses a partir del día siguiente a recibir la notificación de esta resolución.
  - De presentar recurso debe dirigirse al Juzgado de lo Contencioso Administrativo de Donostia / San Sebastián.

Donostia, 2015-09-08

Jaime Dominguez-Macaya Larnaaga  
San Marko Mankomunitateko lehendakaria

